



## ENPRESETAN PRAKTIKAK EGITEKO BEKEN PROGRAMA

### EZAUGARRI NAGUSIAK

#### ▶ Onuradunak

- ▶ Prestakuntza hasten den unean **18 eta 30 urte** artean izan behar ditu.
- ▶ Zerga-egoitza **Gipuzkoako** Lurralde Historikoan izan behar du.
- ▶ **Langabezian** egon behar du.
- ▶ Ofizialki onartutako **tituluak, homologatuak**, dituela egiaztatu behar du, edo unibertsitatekoak, edo lanbide heziketakoak, edo hezkuntzako edo prestakuntzako beste zentro batzuetakoak.
- ▶ Eskaera egiten duen unean, lanbidearekin lotutako irteera gutxi duela erakutsi behar du, eta, ordutegien aldetik, libre dagoela.

#### ▶ Bekaren ezaugarriak.

- ▶ Datak: 2010eko **maiatzaren 17tik aurrera** hasiko da bekaren aldia, eta urte bereko abenduaren 31 baino lehen, amaituko.
- ▶ Batetik, prestakuntza espezializatua edo bekadunaren tituluen osagarri dena hartuko du prozesu honek, eta bestetik, enpresa batean praktikak egiteko aldia.
- ▶ Bekadunari emango zaion laguntzaren zenbatekoa: **500 € hilean** (aipatutako hitzarmenaren kontura).
- ▶ Enpresei ez die inolako diru kosturik eragingo.
- ▶ **Prestakuntza** eta enpresan egin beharreko praktikak aldi berean egingo dira. Prestakuntzarako, gutxi gorabehera, 100 ordu beharko dira, eta astean egun batean egingo da saioa (5 ordu ingurukoa).
- ▶ Enpresak dituen premietara hobekien egokitzen diren ezaugarri akademiko eta profesionalak dituzten hautagaiei lehentasuna emango zaie, beste baldintza batzuen aldean, besteak beste, joan-etorriak, helbidea eta abar.



## ▶ Enpresan egin beharreko praktikak

- ▶ Praktikak egiteko aldiaren iraupena: **6 hilabete** (gehienez ere, 24 ordu astean, astelehenetik ostegunera, eta, gehienez ere, 6 ordu egunean).
- ▶ **Ez da inolako lan harremanik** izango bekadunaren eta enpresaren artean. Praktika hitzarmen baten bidez arautuko da, eta hitzarmen horrek istripuagatiko arrisku aseguru eta erantzukizun zibilekoa barne hartuko du, Eusko Jaurlaritzaren gain.
- ▶ Enpresak **tutore** bat izendatuko du, praktiketan ari den pertsonaren jarraipen indibidualizatua egin eta aholkuak emateko.
- ▶ Horrez gain, ADEGIk izendatutako **tutorea** izango du praktiketan ari den bekadunak, aholkularitza eman eta jarraipen indibidualizatua egiteko.
- ▶ Ikaslea praktiketan hasi aurretik zehaztuko du enpresak praktiken **edukia**.
- ▶ Enpresak zehaztutako baldintzak betetzen dituzten hautagaiak badaude, ADEGIk proposatutako hiru hautagairen artean hautatu ahal izango du enpresak.

Programan parte hartzea eskatzeko azken eguna **apirilaren 30a** izango da. [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) (Lanbide), [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) (Kutxa) edo [www.adegi.es](http://www.adegi.es) (ADEGI) webguneetako beken bannerraren bidez eskatzen diren ezaugarriak zehaztu behar dira eta izena eman behar da eskaera egiteko. Argibide gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan ADEGIrekin (943 30 91 70 telefono zenbakia).